

Ene Olentzero maitea:

Askotan sufrimenduak aska gaitzkeela dirudi, arerio zakarra eta ankerra den minari irabazitako gerrek egin gaitzaketela libre. Gure argazkiek eta irudiek xume-xume gordetako ametsen memoriak errauts hutsal bilakatu zituen borroka latz hark garaitezin bihur gaitzkeela uste dugu askotan. Etsaitzat dugun oro akatu eta zanpatu nahiko genuke, gupidagabeak gara, berekoiak agian edo beldurtiak beharbada... Bai, aitortu beharra daukat Olentzero, gizakia naiz ni, nire itzal makurren isladaren errudunak bilatzen diardut, askotan nahigabe, ziuraski, gau ilun eta lanbrotsuak argi ditzakeen kriseiluaren bila.

Hara non, nor eta ni izan banaizen nire arerio zital eta gaiztoa. "Bizi ezazu gogoratzea mereziko duen bizitza!" Zenbatetan entzun ote dugu halakorik? Beharrezko suertatzen al zaigu norberaren iraganetik indarrez tira egitea orainari aurre egiteko?

Ez dut galdera hauei dagokion erantzunik espero, ez bainaiz lehen nintzena, ez baitut oroitzen lehen izandakoa. Nire bizitza biltzen zuten oroitzapenak itsugarria den iluntasunak irentsi ditu nonbait eta ni, hutsunez eta orrialde hutsez osatutako aureolan bilduta nago. Esku artean darabilt noizbait nirea izan omen zen gutuna eta zuri, hainbeste ilusioaren babesle zarenari, milaka zati nimitan apurtutako memorien hondarren artean aurkitutako hauxe erakutsi nahi nizuke:

1944ko abenduaren 23an

Kaixo Olentzero:

Amatxok ametsak egi bihur ditzakezula kontatu dit gaur, edozer eska diezazukedala. Zuk eraikitako txondorrek askatutako keak, milaka istorio ei daramatza barnean, kanpora atera orduko, haizeak udazkeneko orbela firin-faran daraman antzera, nonbaitera helduko direnak. Aitak, ipuin pila daki, zure antzera, eta zu maitatzen irakatsi dit. Aspaldi amildu zen ama bakardadean, aitak utzitako zulo beltz erraldoi baten tankerako hutsunea betetzeko ezintasunak itota.

*Horrexegatik, aurten, zure txondorren batek sortutako ikatzaren keak aita dei dezan nahiko
mike eta amak bidalitako tximiniako su epela baino xamurragoa den muxutxoaren helaraz
iezaiozu, bederen.*

Besarkada bat, Marta

Huraxe omen zen nire desiorik sutsuena Olentzero, baina izarren dirdiraren antzera itzaliz doaz gurasoen aurpegiaren irudiak, oroitzapenak... Nire irribarreak irmo badirau ere, itsasoko olatuek etengabe jotako harkaitzen antzerakoa da ordea nire iragana, guztiz arrakalatutakoa. Askotan ahaztu dut etxerako bidea, nire izena, lagunena... Baina hain da polita oraina, hain da baliotsua eta hain da liluragarria non negurik latzena ere epel baitezakeen eta gure arerio den oro ahantzarazi baitiezakegun. Gutxi dira ahaztu edo putzu ilun batean behera galdu ez ditudan oroitzapenak, ziur. Eta, asko dira, ahantzitakoak baino are gehiago, gogoratu nahiko nituzkeenak. Hainbeste maite dudan ene Olentzero maiteari, lanbroak geratzen zaizkidan oroitzapen txikiak irentsi aurretik, zera eskatu nahiko nioke: hurrengo gabonik balego bete itzazu nire orri zuri eta hutsak gaztain erreen usainaz, muxuz, maitasunez, besarkadez, irribarrez, gabon kantez... Segundu batzuetarako baino ez bada ere.

Bihotz- bihotzez,

Marta